Lehenengoa.- Adieraztea La Baluga ikastetxe publikoan Lehen Hezkuntzako ziklo berri bat sartzea guztiz bateragarria dela Gotzaintzak eta Udalak 2005eko uztailaren 27an agiri publikoan agerraraziko dohaintzaren baldintzarekin. Horren arabera, eraikina ikastetxe publikoak erabili beharko du.

Bigarrena.- Adieraztea, ondorioz, ikastetxe horretan Lehen Hezkuntzako ziklo berri bat ezartzeak ez duela urratzen ez baldintza hori, ez dohaintza-agiriko besterik. Horrenbestez, berehala, normal eta legez ezar daiteke.

Hirugarrena.- Bilboko Gotzaintzari (Eliza Katolikoa. Bilboko Elizbarrutia) hamar asteguneko epea ematea, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, espedienteari dagozkion eta egokitzat jotzen dituen alegazioak eta agiriak aurkez ditzan. Ondoren, hala badagokio, espedientearen behin betiko ebazpena onetsiko da.

Laugarrena.- Adieraztea, era berean, ebazpen hau izapide hutsa dela eta, horregatik, honen aurka ezin dela helegiterik aurkeztu. Horrek ez du eragozten, baina, aurreko xedapenean ezarritako epean alegazioak aurkeztea.

3.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 1/14 ZENBAKIKO OHIKO ENKANTEAN ESLEITU GABEKOTZAT JOTAKO PARTZELAK ZUZENEAN ESLEITZEKO PROPOSAMENA, BASOEN APROBETXAMENDURAKO.

[...]

Beraz, bertaratuek, aho batez, honako hau erabaki dute:

LEHENENGOA.- CENTRAL FORESTAL, SA ENPRESARI honako baso-aprobetxamenduen loteak esleitzea (1/2014 enkantearen lizitazioan daude), prezio hauengatik:

71. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, María Puente Diez andrearekin partzuergoan duena. Tasazioa: 9.9.600 € (BEZik GABE) + 2.016 € (BEZa). GUZTIRA: 11.616 € (BEZ BARNE)

72. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, Avelina Marcos Gazpio andrearekin partzuergoan duena. Tasazioa: 11.11.517,50 € (BEZik GABE) + 2.418,67 € (BEZa). GUZTIRA: 13.936,17 € (BEZ BARNE)

73. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, Juan María Pajuelo Fernández jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 7.341,60 € (BEZik GABE) + 1.541,73 € (BEZa). GUZTIRA: 8.883,33 € (BEZa BARNE)

78. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, Joaquín Vidales Aretxaga jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 1.800 € (BEZik GABE) + 378 € (BEZa). GUZTIRA: 2.178 € (BEZ BARNE)

79. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, Antonio García Jiménez jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 6.696 € (BEZik GABE) + 1.406,16 € (BEZa). GUZTIRA: 8.102,16 € (BEZa BARNE)

80. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, Matellanes Icaza neba-arrebekin partzuergoan duena. Tasazioa: 10.373,40 € (BEZik GABE) + 2.178,41 € (BEZa). GUZTIRA: 12.551,81 € (BEZa BARNE)

82. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, Angel Ortiz Rubio jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 10.488 € (BEZik GABE) + 2.202,48 € (BEZa). GUZTIRA: 12.690,48 € (BEZa BARNE)

85. LOTEA - Udalaren jabetzakoa. Tasazioa: 19.662 € (BEZik GABE) + 4.129,02 € (BEZa). GUZTIRA: 23.791,02 € (BEZa BARNE)

86. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, Juan María Pajuel Fernández jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 9.490,50 € (BEZik GABE) + 1.993 € (BEZa). GUZTIRA: 11.483,50 € (BEZa BARNE)

94. LOTEA - Udalaren jabetzakoa, Leonardo Altonaga Ibañez jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 15.370 € (BEZik GABE) + 3.227,70 € (BEZa). GUZTIRA: 18.597,70 € (BEZa BARNE)

BIGARRENA.- MADERAS PORTILLO, SA ENPRESARI honako baso-aprobetxamenduen loteak esleitzea (1/2014 enkantearen lizitazioan daude), prezio hauengatik:

23. LOTEA.- Udalaren jabetzakoa, Feliciano Santisteban González jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 6.969,50 € (BEZik GABE) + 1.463,59 € (BEZa). GUZTIRA: 8.433,09 € (BEZ BARNE)

41. LOTEA – Udalaren jabetzakoa, Belén Sastinsteban andrearekin partzuergoan duena. Tasazioa: 2.623,50 € (BEZik GABE) + 550,93 € (BEZa). GUZTIRA: 3.174,43 € (BEZ BARNE)

74. LOTEA – Udalaren jabetzakoa, Miguel Nieto Lahera jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 9.184 € (BEZik GABE) + 1.928,64 € (BEZa). GUZTIRA: 11.112,64 € (BEZ BARNE)

88. LOTEA – Udalaren jabetzakoa, M^a. Teresa Portilla Ruiz andrearekin partzuergoan duena. Tasazioa: 4.264 € (BEZik GABE) + 895,44 € (BEZa). GUZTIRA: 5.159,44 € (BEZ BARNE)

91. LOTEA – Udalaren jabetzakoa, Rodrigo Arenaza Bolivar jaunarekin partzuergoan duena (oinordekoak). Tasazioa: 3.312 € (BEZik GABE) + 695,52 € (BEZa). GUZTIRA: 4.007,52 € (BEZa BARNE)

101. LOTEA – Udalaren jabetzakoa, Maximiano Rey Ruiz jaunarekin partzuergoan duena. Tasazioa: 12.566,70 € (BEZik GABE) + 2.639 € (BEZa). GUZTIRA: 15.205,70 € (BEZ BARNE)

4.-ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ERABILERA PUBLIKOKO MENDIAREN LURSAILAK BANATZEA, BIDE BAT JARRI ETA ERABILERA ALDATZEKO.

[...]

Idazkari kontu-hartzaileak proposamena irakurri eta Udalbatza Osoari helarazi dio. Honako hau dio:

“SOPUERTAKO ERABILERA PUBLIKOKO MENDIAREN LURSAILAK UZTEA ETA EDUKITZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN 7.k artikulua hau ezartzen du:

k).- Udalak lursail osoa edo lursailaren zati bat behar duenean erabilera edo zerbitzu publikoa emateko, udal-obreak egiteko edo lehentasunezko beste erabilera batzuetarako.

Proposatu da banantzea eta ebaztea jarraian aipatzen diren lursailen 1.320 m² ematea, banandutako metro koadroen erabilera aldatzeko. Sopuertako 120 zenbakiko EPMren barruan sartuta egoten jarraituko dute.

Banaturiko 1.320 m²-ak erabilera eta zerbitzu publikokoak (eta, beraz, jabari publikokoak) izango dira gero ere; izan ere, oraingo nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenerako herri-ondasun izaera deskatalogatu besterik ez da nahi, eta Sopuertako 120 zenbakiko Erabilera Publikoko Mendia erabilera eta zerbitzu publikoko bide bihurtu, eta, beraz, jabari publikokoa. Bide hori eginda, 12/75-4 eta 20/75-1 partzeletara (Udal honek emandako partzelen erregistroa) eta horien hegoaldeko partzeletara sartu ahal da (denak daude EPMren barruan). Hala, EPM barrutik sarbidea sortuko da, bestela egin ezin litekeena, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenen jarduerak Sopuertatik Balmasedarako foru-errepideko trafikoa oztopatuko lukeelako.

Proposamena:

Honako hauek hasieran onestea, bidezkoa bada:

1. 20 zenbakiko eremuko partzelak eta zatiak banatzea eta ematea. Hona hemen lursailak:

12/75 partzela – 3: 160 ml banatuko dira, 6 ml-ko zabalera dutenak. Guztira 960 m² dira

12/75 partzela – 4: 60 ml banatuko dira, 6 ml-ko zabalera dutenak. Guztira 360 m² dira

Azalerak: egungo partzelak

12/75 – 3 = 14.106,20 m².

12/75 – 4 = 28.351,20 m².

Metro karratuak guztira 42.457,40 m²

Etorkizuneko partzelak

12/75 – 3 = 13.146,20 m².

12/75 – 4 = 27.991,20 m²

Metro karratuak guztira 41.137,40 m²

Guztira banatu beharreko metro karratuak: 1.320 m²

2. Eremu horiek erabilera eta zerbitzu publikoko, eta, beraz, Sopuertako 120 zenbakiko EPMko zerbitzu publikoaren jabari publikoko bihurtzea.

Baso Zerbitzuak lursailak banatzeko eta deskatalogatzeko proposamenaren aldeko txostena igorri zuen 2014ko abenduaren 12an (sarrerako erregistro-zenbakia: 108, 2015eko urtarrilaren 9koa).

Prozedura:

Entzunaldirako izapidea emango zaie JLLL egungo kontzesiodunari eta partzela mugakideen kontzesiodunei. Entzunaldirako izapiderako epea: 15 egun.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-tauletan argitaratuko dira.

Sopuertan, 2015eko urtarrilaren 15ean”

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egin da, eta bertaratuek aho batez erabaki dute onestea.

5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, EPMko PARTZELA BANATZEA, JLLL JAUNAREN ETXEBIZITZAREN ZERBITZURAKO

[...]

Bertaratuek, aho batez, honako hau erabaki dute:

Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenerako 12/75– 3 partzelaren (Udalak emandako partzelen erregistroa) 1.556 m2 banatzea, Udalak bere garaian JLLLri saldutako etxebizitzaren zerbitzu gisa erabiltzeko, gaur egun Sopuertako 120 zenbakiko EPMan duen nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera mantenduta.

Hau da proposamena egiteko arrazoia: 120 zenbakiko EPMko herri-lursailean eraikitako eraikinek okupaturiko lursaila saldu zenean, JLLL jaunari saldutako lursailak (hor dago bere etxea) Sopuertako 120 EPMko herri-lursailez inguratua zegoen (12/75- 3 partzela). Izan ere, eraikinak okupatutako lursaila bakarrik saldu zitzairen. Proposamen honen asmoa da eraikinak bere zerbitzurako lursaila edukitzea eta auzo-errepidera iristea ahalbidetzea

Proposamena: honako hauek hasieran onestea, bidezkoa bada:

1. Honako partzela hau banatzea:

12/75 – 3 partzela: 1.556 m2 bereiziko dira

Partzela, errepidearen bereizketa kenduta: 13.146,20 m2

Etorkizuneko partzela (erreferentzia: 12/75 – 3), 1.556 m2-ko banaketa kendu ondoren: 11.590,20 m2

2. 12/75-3 partzela JLLL jaunari eman zaionez, 1.556 m2-ko partzela berria ere JLLL jaunari ematea proposatzen da; partzela berriari udal honek emandako partzelen erregistro-zenbakia eman behar zaio. Partzela horiek jabari publikokoak dira, Sopuertako 120 EPMren barruan.

Baso Zerbitzuak lursailak banatzeko proposamenaren aldeko txostena igorri zuen 2014ko abenduaren 12an (sarrerako erregistro-zenbakia: 108, 2015eko urtarrilaren 9koa).

Prozedura:

*Entzunaldirako izapidea emango zaio JLLL egungo kontzesiodunari.
Entzunaldirako izapiderako epea: 15 egun.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-tauletan argitaratuko dira.”

6.- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO BILBOKO 4 ZENBAKIKO EPAITEGIAK EMANDAKO 280/14 EPAIAREN BERRI EMATEA ETA MMF ANDREAK SOPUERTAKO UDALAREN AURKA JARRITAKO AUZI ESKEA EZ ONARTZEA.

[...]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

7.- TOKIKO AGENDA 21en EKINTZA PLANA EBALUATZEKO ETA AZTERTZEKO ZORTZIGARREN PROGRAMAREN EMAITZEI BURUZKO TXOSTENAREN ETA IRAUNKORTASUN ADIERAZLEEN KALKULUAREN BERRI EMATEA (ATALA: IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK KALKULATZEA).

[...]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

7.- TOKIKO AGENDA 21en EKINTZA PLANA EBALUATZEKO ETA AZTERTZEKO ZORTZIGARREN PROGRAMAREN EMAITZEI BURUZKO TXOSTENAREN ETA IRAUNKORTASUN ADIERAZLEEN KALKULUAREN BERRI EMATEA (ATALA: PLANAREN BETETZE MAILA EBALUATZEA).

[...]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

9.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ABENDUAREN 9ko 945/14 DEKRETUA BERRESTEA.

[...]

Abenduaren 9ko 945/14 Dekretuak (hori berrestea aztertzen da) udal-arkitekto tekniko eta aholkulariaren 004/14 balioespen-memoria onesten du, “LA BALUGA IKASTETXE PUBLIKOKO JOLASTOKIA HOBETZEKO” obrari buruzkoa (zenbatekoa: 51.241,29 €). Memoria presazko arrazoiengatik idatzi da, eta diru-laguntza eskatzeko helburu bakarrarekin; izan ere, ez da jasotzen onetsitako udal-aurrekontuan, eta ezinezkoa da hurrengo ohiko osoko bilkurara arte itxarotea.

Aintzat hartu da, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearekin bat etorriz, Udalbatzari dagokiola obra-proiektuak onestea, aurrekontuan jasota ez badaude.

Bertaratuek aho batez erabaki dute abenduaren 9ko 945/14 Alkatetza Dekretuaren ebazpena berrestea.

10.- 2014ko URTARRILAREN 1eko UDAL ERROLDA BERRIKUSITA KALKULATUTAKO BIZTANLE-KOPURUAREN BERRI EMATEA.

Urtarrilaren 21eko 1/2015 zenbakiko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordean jakinarazi zen 2013ko urtarrilaren 1ean 2.575 biztanlekoa zela herritarren kopuru ofiziala (udal-errola berrikusita kalkulatu zen). 2014ko urtarrilaren 1ean, 2.563 biztanle daude.

Udalbatza Osoari horren berri eman zaio, eta jakinaren gainean geratu dira.

11.- ALONSOTEGIKO, ARTZENTALESKO, BALMASEDAKO, GALDAMESKO, GORDEXOLAKO, GUEÑESKO, LANESTOSAKO, SOPUERTAKO ETA ZALLAKO UDALEN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEAN 2013ko AZAROAREN 21ean IZENPETURIKO LANKIDETZA HITZARMENAREN LUZAPENAREN BERRI EMATEA (2015 EKITALDIRAKO). HITZARMEN HORI “GAZTEDI BIZKAIA” PROIEKTUA 2013-2014an EZARTZEKO EGIN ZEN, “GAZTEDI ENKARTERRI” PROIEKTUA ABIARAZITA.

[...]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

12.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ALEN ELKARTEARI LOKALA EMATEKO HITZARMENA ALDATZEA.

[...]

Bertaratutakoek aho batez onartu dute ondasun-espeditentea eta Alen elkarteari udaleko eta tokiko ondasuna emateko prozedura abiaraztea. Izapideak egin ondoren, hurrengo bilkuran aztertuko da, horren inguruan ebazteko.

13.- 2014 EKITALDIAN SOPUERTAN IZANDAKO GERTAKARIEI BURUZKO ERTZAINZAREN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

[...]

Alkateak Ertzaintzak emandako datuen berri eman du, eta nabarmendu du datu guztiek erakusten dutela indarkeria bidezko lapurreta, etxeko lapurreta eta enpresetako lapurreta gutxiago izan direla. Bestalde, toki itxietako lapurreta-kopurua antzekoa da,

eta genero-indarkeriako eta etxe indarkeriako kasuak nabarmen ugaitu dira: 3tik 12ra igaro dira.

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

14.- 2013 EKITALDIKO ADIERAZLE EKONOMIKO-FINANTZARIOEI BURUZKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

[...]

Urtarrilaren 21eko 1/2015 zenbakiko Kontuen Batzorde Berezian eta Ogasuna, Ondarea, Barne Erregimena eta Langileak Informazio Batzordean honako adierazle ekonomiko-finantzarioen berri eman zen (Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu zituen, 2013 ekitaldiko datuekin batera).

Udalerria	Presio fiskala	Transferentzia arrunten mendekotasuna	Inbertsio-maila	Dagokien langileen gastuak
Sopuerta	226,87	% 85,72	% 23,81	% 22,26
2.000 eta 4.999 biztanle arteko udalerriak	493,92	% 64,45	% 14,75	% 26,73
Bizkaia	467,24	% 64,41	% 8,33	% 31,08

[...]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

15.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, JASJ OBRETAKO LANTALDEKO FUNTZIONARIO-PEOI JAUNARI PRODUKTIBITATE PLUSA AITORTZEKO PROPOSAMENA, EGINIKO KOORDINATZAILE LANENGATIK

[...]

Alkateak aldatu egin du eguneko aztergaien zerrendako gaiaren adierazpena, eta Udalbatza Osoari jakinarazi zaio Alkatetzaren proposamena

Horren berri emanda, Udalbatza Osoa jakinaren gainean geratu da.

16.- UDALEKO DIRUZAIN FUNTZIONARIOAREN BORONDATEZKO ERRETIROARI BURUZKO 2014/0363 ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.

[...]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

17.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 923/14, 999/14 ETA 1104/14 FAKTURAK ORDAINTZEKO BETEBEHARRA AITORTZEA.

[...]

Alkateak eskatu du puntu hau eguneko aztergaien zerrendatik kentzeko, eragozpen bat dagoelako ebazteko.

Bertaratuek aho batez erabaki dute gai hori bilkurako aztergaien zerrendatik kentzea eta ez bozkatzea.

KONTROLA.

18.- UDALAREN AURKA JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOEN BERRI EMATEA (GAUR-GAURKOZ, EBAZTEKO DAUDE).

[...]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

19.- AZKEN OSOKO BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

[...]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

20.- MOZIOAK.

20.1.- EDURNE SANTAMARIA ANDREAK, BILDUREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA, AURKEZTUTAKO MOZIOA, ERREGISTRO ZIBILAREN KUDEAKETA MERKATARITZA ERREGISTRATZAILEEI EMATEN DIEN UZTAILAREN 4ko 8/2014 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUAREN INGURUAN.

Alkateak azaldu du erregistro zibilen inguruko mozio hori ELA, LAB, CCOO, UGT ETA CGT sindikatuek aurkeztu dutela eta Eusko Jaurlaritzan onetsi dela. Jarraian, mozioa irakurri du:

“Erregistro Zibilean inskribatzen dira pertsonen euren bizitzan eragiten dieten oinarriko gertaerak. Hala, pertsonen jaiotzak, ezkontzak, dituzten seme-alabak eta heriotzak jasotzen dira. Era berean, bizitzan izaten ditugun gorabeherak jasotzen dituzten espedienteak ere izapidetzen dira, eta hasierako inskripzioan aldaketak eragiten dituzte: aitasun/amatasunaren aitorpena, adopzioa, ezgaitasunaren aitorpena, tutoretzak, izen-, abizen- edo sexu-aldaketak, edota herritartasun jakin bat eskuratzea edo pentsio publikoak nahiz aseguruak edo osagarri pribatuak zein enpresakoak kobratzen jarraitu ahal izateko gure adinekoentzat horren beharrezkoa den bizitza-fedea igortzea. Hori dela eta, beti funtzionario publikoek eman dute zerbitzua, eta duela urte askotik Justizia Ministeriokoak dira (edo dagokion autonomia-erkidegoko sailburutzakoak). Horrela, bermatu egiten da erregistroan sartutako datuen pribatutasuna, bai eta legezko interesdunen sarbide askea eta doakoa ere.

Bake-epaitegiek herritarrengana hurbiltzen dute justizia-administrazioa, parte hartzen duten edozein prozeduraren informazio orokorra jaso dezaketelak, eta, gainera, Erregistro Zibil gisa jarduten dutelako. Horrela, saihestu egiten da herritarrak eguneroko bizimoduarekin lotutako izapideak egitera herrialdeko hiriburura joan behar izatea, udalerrri bakoitzean bake-epaitegi bat dagoelako.

Azken urteotan, gainera, Herri Administrazioak inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren funtzionamendua modernizatzeko. Zerbitzu horri dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu dira, eta bertan erabiltzen diren datuetara sarbide seguru eta kontrolatua izateko programa bat sortu da. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berrietan.

Alderdi Popularraren Gobernuaren asmoa da interes pribatuen esku uztea Erregistro Zibila, zehazki, kudeaketa merkataritza-erregistratzaileen esku utzita. Hala, zalantzan jartzen da bake-epaitegiei eta egungo alderdi judizialei eutsiko zaien. Hori jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Planta eta Mugatze Judizialari buruzko Legea aldatzen dituzten proiektuetan eta 2015eko uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretuan.

Aurtengo otsailaren 20an, Eusko Legebiltzarrak, gehiengoz, Eusko Alderdi Jeltzalearen, Euskal Herria Bilduren eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerraren babesarekin, legez besteko proposamena onesteko erabakia hartu zuen, hain zuzen, Erregistro Zibila gaur egun bezala mantentzeari buruzkoa, herritarrei zerbitzu publikoa eta doakoa ematen jarraitzeko.

Zehazki, honako hau ekarriko du pribatizazio horrek:

7. 3.500 funtzionario publikok lanpostua galtzea. Funtzionario horiek erregistro zibilaren inguruko prestakuntza, ahalmena eta espezializazioa lortu dute.

8. Bake-epaitegien zereginaren zati bat desagerraraztea, lanpostua desagerrarazi baino lehenagoko neurri gisa. Are gehiago, Planta eta Mugatze Judizialari buruzko Legean eta Botere Judizialaren Lege Organikoan eginiko

aldaketek atea irekitzen diote bake-epaitegiak ez ezik, alderdi judizial gehienak ere desagerrarazteko aukerari; horrela, epaitegiak herrialdeetako hiriburuetan besterik ez dira egongo. Horrekin batera, Erregistro Zibilen egitekoa, edukirako sarbidea eta, are gehiago, bake-epaitegien eginkizunak merkataritza-erregistratzaileen esku utziko dira, eta, beraz, bide ematen zaio horiek kentzeko aukerari.

9. *Zerbitzuak emateagatiko tasak ezartzea. 8/2014 Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen du zerbitzua doakoa izango dela. Hala ere, merkataritza-erregistratzaileek, nahiz eta funtzionario publikoak izan (lanpostua lortzeko erari eta monopolio-erregimenean duten egitekoari dagokienez), muga-zergen bidez kobratzen dituzte beren zerbitzuak. Etorkizunean, gainera, zerbitzu horietan Erregistro Zibileko izapideak sartuko dira, derrigorrezkoak baitira herritar guztientzat (jaiotzak, familia-liburuak edo heriotzak inskribatzea, ziurtagiriak ematea, bizitza-fedea eta egoera...). Gainera, lege berriak indartu egiten ditu erregistratzaileen ahalmenak eta esponenzialki areagotzen ditu herritarrek alde aurretik ordainduta egin beharko dituzten inskripzioak (edozein botere, etxebizitzaren inskripzioa, pentsio-planak, testamentuak...). Horren ondorioz, Erregistro Zibila merkataritza-jarduera bihurtuko da, eta egintza bakoitzak prezio jakin bat izango du. Prezio horrek, bestalde, loditu egingo ditu gutxiengo pribilegiatu baten poltsikoak.*

10. *Datuen babeseko segurtasun-falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak. Hortaz, datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, baina pertsona horiek ez dute konfidentzialtasun-eskakizunik edo sekretupekorik bete behar, langile publikoek ez bezala.*

11. *Urteotan Erregistro Zibila berritzeko eginiko inbertsioa zerbitzu pribatuen esku geratuko da; izan ere, kudeaketa lagatzeak horri atxikitako baliabide material guztiak lagatzea dakar. Baliabide-lagatze horrek diru publikoa xahutzea dakar; izan ere, inbertsioak eginda daude, baliabide materialak beteta, azpiegiturak nork bere gain hartuta eta giza baliabideak kontratatuta, prestatuta eta gaituta. Hots, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago oparituko zaie jabetzaren erregistratzaileei, euren onuragarri.*

12. *Erregistro Zibilean jasota dagoen gure historia pertsonalerako eta gure familiaren eta herriaren beraren historiarako sarbidearen murrizketak. Bertan, gure arbasoei eta haien jatorriei eta bizimoduei buruzko informazioa aurki dezakegu.*

Horregatik guztiagatik, Sopuertako Udala:

Uztailaren 4ko 2014/8 Legegintzako Errege Dekretuaren aurka agertu da, Erregistro Zibilaren kudeaketa merkataritza-erregistratzaileei ematea xedatzen du eta.

Halaber, adierazten du beharrezkoa dela Erregistro Zibila egungo Erregistro Zibileko bulegoek eta bake-epaitegiek kudeatzen jarraitzea eta herritarrei zerbitzu publikoa eta doakoa ematea orain eta betiko.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Eusko Legebiltzarrean aurtengo otsailean onetsitako mozioarekin bat etorritz, kudeaketa eta exekuzioko eskumenak besterentzeko negoziaketak bizkortzeko, kontuan hartuta LED hori 2015eko uztailaren 15ean sartuko dela indarrean.”

Berlaratuek aho batez onetsi dute eguneko aztergaien zerrendan sartzea, ondoren eztabaidatu eta bozkatzeko.

Mozioari buruzko bozketa eginda, bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

20.2.- ALKATEAK, BILDUREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA, AURKEZTUTAKO MOZIOA, BIZKAIBUSEN ENKARTERRI-GURUTZETAKO OSPITALEA-UPV/EHU LINEA ESKATZEKO.

Alkateak adierazi du Bilduk aurkeztutako mozioa dela. Jarraian, idazkariak mozioa irakurri du:

“Bizkaibuseko Enkarterri–Gurutzetako Ospitalea–UPV/EHU linea eskatzeko mozioa.

Sopuertako Udala jakinaren gainean dago gure udalerriko gero eta herritar gehiagok eskatzen dutela beren beharrezanekin bat datorren garraio publiko bat jartzeko.

Udal honek behar beste kudeaketa egingo ditu kalitate handiko garraio publiko bat lortzeko, gure herritarrek merezi dutena emango duena. Horrez gain, oraingo gertakari jakin batzuek bide eman dezakete (eta eman behar dute) Bizkaibusek gure udalerrinari ematen dion zerbitzua handitzeko eta hobetzeko. Zehazki, honako hauei buruz ari gara:

Foru-erakundeak eta Bizkaibuseko langileek akordioa lortu dute, Enkarterri–UPV/EHU linea martxan jartzeko, egunean hiru zerbitzuekin.

Euskadiko osasun-arreta orain gutxi berrantolatuta, gure eskualdea Gurutzetako Ospitalearen esku geratu da, osorik, medikuntza-espezialitate guztietarako. Bada, lehen bagenuen Gurutzetako Ospitalera joateko beharra, osasun-arreta jasotzeko edo senideak bisitatzeko; hemendik aurrera, ordea, behar handiagoa edukiko dugu. Gaur egun, bi garraio publiko hartu behar dira ospitalera iristeko.

Enkarterriko linearen kontratua duela gutxi esleitu da. Kontratu horretan aurreikusita dago zerbitzuak zabalitzea, Aldundiak hala erabakitzen badu.

Horregatik guztiagatik, SOPUERTAKO UDALBATZA OSOAK HONAKO HAU ESKATZEN DIO BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI:

Martxan jar dezala Bizkaibusen Enkarterri-Gurutzeta-EHU linea, egunean sei zerbitzurekin.

Eskaera horri dagokionez, hau uste dugu:

Gure herritarren eguneroko eta oinarrizko beharrezkoei erantzutea du oinarri. Eguneko zerbitzu batez ari gara, Aldundiak beste aldi batzuetan erabili dituen lehentasuneko beharrezkoei erantzuteko: lantokira, ikastetxera edo osasun-etxera joatea.

Erabiltzaile potentzial askok eskatzen dute.

Erakunde guztiok aldarrikatzen ditugun oinarrizko alderdiei eragiten die: garraioa zentzuz erabiltzea, energia gutxiago kontsumitzea eta ingurumena babestea.

Lanpostuei egonkortasun handiagoa ematen die, linea zabalagoak (urte osokoak, ez bakarrik ikasturtekoak) eta bidaiari gehiagokoak sortuko dira eta.”

Bertaratuek aho batez onetsi dute eguneko aztergaien zerrendan sartzea, ondoren eztabaidatu eta bozkatzeko.

Juan Carlos Hurtado jaunak esan du ondo deritzola eta ados dagoela, eta idatziz jaso du Sopuertako autobusen ordutegiak kendu egin dituztela. Herritarren kezak jaso dituela azaldu du. Erantsi du gu Enkarterri garela, eta galdetu du ea geuretzat, Sopuertarentzat, ari garen eskaria egiten.

Javier Núñez jaunak proposatu du Muskiz eta Zalla arteko anezka bat eskatzea, Galdames eta Sopuertatik igaroko dena.

Mozioari buruzko bozketa eginda, bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

20.3.- EAJ/PNVk AURKEZTUTAKO ORDEZKO MOZIOA, ENKARTERRIKO OSASUN INSTALAZIOEI BURUZKOA.

Javier Soto jaunak, EAJ/PNV taldeko bozeramaileak, osorik irakurri du EAJ/PNVk ENKARTERRIKO osasun-instalazioei buruz aurkezturiko ordezkoko mozioa:

“1.- Sopuertako Udalak berriro dio Enkarterri eskualdeak beharrezkoa duela osasun-baliabide espezializatu bat edukitzea.

2.- Sopuertako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunezkoztat jo dezala ESKUALDEKO OSASUN AZPIEGITUREN INBERTSIOA, ETA EGOERA EKONOMIKOAK BIDE EMAN BEZAIN LASTER EGIN DADILA.”

Bertaratuek aho batez onetsi dute eguneko aztergaien zerrendan sartzea, ondoren eztabaidatu eta bozkatzeko.

Alkateak esan du ez dagoela deseroso, baina badagoela beharra. Ondoren, adierazi du ez dagoela ados “egoera ekonomikoak bide eman bezain laster” adierazpenarekin.

Moziolari buruzko bozketa eginda, bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

GALDE-ESKEAK.

